



Josu bota eta Iñigo Egoitz Gorrotxategiaren ezkerretik, Josu Egoitz Gorrotxategiaren coach, Iñigo Egoitz Gorrotxategiaren coach eta Josu Egoitz Gorrotxategiaren coach.

Nola neurtzen da zein den onena?

Bost epaile daude. Puntuaziorik txikiena eta handiena kentzen dira eta gainerakoe-kin batezbestekoa egiten da. Gure asmoa nota ona ateratzea zen baina ondo pasatze- ra joan ginen. Ez genuen espero txapeldun geratzea!

Nola erabaki zenuten lehiaketan parte hartzea?

Iñigok animatu gintuen, bera sinetsita zegoen emaitza ona lor genezakeela. Gu ez gara sekula txapelketa batean egon eta ez genuen gure burua prest ikusten, urte gutxi daramagu hapkidoa praktikatzeko. Baina azkenean maisuari kasu egin genion, izena eman, eta hilabetez gogor entrenatu gintuen. Eta egin genuen! Podiumera deitu gintuztenean ez genekien zergatik zen, zur eta lur geunden!

Zergatik hasi zineten hapkidoan?

Ibone: Txikitik taekwondoa egiten nuen baina nire adinarekin ez nuen nire burua ikusten bueltatzeko, malgutasun eta sasoi fisikoa behar delako. Aldiz, hapkidoaren eraginkortasunak, zure baldintzak zein diren ere egin dezakezun guztiak, horrek erakarri ninduen.

Josu: Nire semeak taekwondoa egiten zuen, eta erakustaldiak ikustera joaten nintzenean, taekwondokoaren ostean hapkidoa zeterren. Nik arte martzialak oso gustuko ditut betidanik, eta pare bat urtez buruan izan eta gero, azkenean izena eman nuen. Hapkidotik erakartzen nauena da oso anitza dela. Eta bestetik, kirol honek defentsarako duen ahalmena, erasotzaileari eragiten diozun mina kontrola dezakezulako hura geldiarazi eta biolentzia gehiago ekiditeko.

// Txapelketarako astebete falta zenean bizkarreko galanta jaso nuen eta lesionatuta nengoela uste nuen. Zorionez, jausten ere propio ikasten dugu //

Ahazteko ez duzuen momentu bat?

Ibone: Txapelketan Sevillako maitu bitek urdun nengoela baldin zidan eta nure burua Macarenako ama biniari gomendatuko nio! Erantzun nioen zain ero bileran bitxia noren maituak paka nindutela. Hara non nintse, hura Macarenako lepakaria zen! Bada, txapelketaren ostean tofiadiara bisita ederri egin zigun eta oso lagun egin ginen.

Josu: Euren maituak oso gogorrik nira koipe zeroketa eta biluurdurak praktikatzeko direlako. Bada,

txapelketarako astebete falta zenean saurtiketa bat egin zidsten eta bizkarreko galanta hartu nuen. Gogorazten nint

Jurrean nengoela pentsatu nuela: "Akabo". Zorionez, ondo jausi nintzen, hori ere propio ikasten dugulako.

Iñigo: Txapelketan galxolasan larria duen kirolari bat atera zen, taidekako lehiari, lide guztiak buruzagi. Erakusketa lehiarekin jasotako bera eta osteko txalo zaparrada ez dauzkat ahazteko. Honek definitzen du ondoen hapkidoa zor den



Zenbat pertsona mugitzen zarete hapkidoaren inguruan?

Kirol federatua gara, taekwondokoaren federazio berean gaude. Halaber, EAEn ez gara kirolari asko, horregatik prestatuta

daudenek zuzenean Espainiako txapelketan izena ematen dute. Gure kluba EAeko bakarra da "txuktoa" (banbuzko ezpata tradizional korearra) erabiltzen irakasten duena, adibidez.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)